
I P A

R R A

G I R R E

Bihotzeko Jose Mari

K O N T Z E R T U E S Z E N I K O A



TANTTAKA

DEMODE QUARTET

LOR<LDIA

200 URTEURRENEAN

Iparragirre 1820an munduratu zen,

beraz 2020. urtean sortu zenetik 200 urte ospatuko dugu. Hori dela eta, , bi kultur enpresa, TANTTANKA TEATROA eta DEMODE QUARTET, eta kultur elkarte bat, LORALDIA, elkartzen dira sormen-lan bat plazaratzeko asmoarekin: “IPARRAGIRRE, bihotzeko Jose Mari” kontzertu eszenikoa.

ELKARLANA:

TANTTAKA + DEMODE QUARTET + LORALDIA PRODUKZIOAK

Tanttaka Teatroa, Demode Quartet eta Loraldia Produksioak elkarlanean ari dira kontzertu eszeniko hau plazaratzeko. Lan funtzioak banatu ditugu: Tanttakak zuzendaritza artistikoaren ardura gidatuko du, Demode Quartetek zuzendaritza musikala burutuko du eta Loraldia Produksioak-ek ekoizpena diseinatuko du.

TANTTAKA

DEMODE QUARTET

LORALDIA

KONTZERTU ESZENIKOA

Sustatuko dugun sormena arte eszeniko eremuan kokatzen da. Teatro-lan honek kontzertu bat eskainiko du, Iparragirrereren ekarpen musikala erdigunean kokatuko baitugu. Bardoaren kantak moldaketa garaikidearen bidez aurkeztuko dira.

Iparragirrek hamaika kanta bikain sortu zituen. Horietako asko bi mende ondoren herriak kantatzen ditu maiz. Horrez gain, batzuk ereserki bihurtu dira. Beraz, arlo musikalak leku nabarmena izango du.

EMAKUMEAK PROTAGONISTA

Dramaturgiari dagokionez, Iparragirrereren bizitzan nabarmendu ziren emakumeak bilduko ditugu eta sormenaren protagonistak (ama, emaztea, Parisen ezagutu zuen sopranoa, Manuela, alabak...) izango dira. Emakume hauek Iparragirrereren bizipenak ekarriko dituzte gogora eta euren begirada eskainiko digute. XIX. mendeko gizartea (gerra karlistak, emigrazioa, euskaltasuna...) islatuko da bardoaren bizi-pasarteak errepatatuz.

Teatro-lanaren gidoiari dagokionez, emakumeek Iparragirreri bidalitako eskutitzek osatuko dute aktoreen testua. Fikziozko eskutitzak izango dira eta idazki guztien artean Urretxuko bardoaren biziaren puzzlea osatuko da.

Bihotzeko Jose Mari...



HIRU AKTORE ETA MUSIKARI BAT

Hiru emakume izango dira aktore-kantari lanetan: Joli Pascualena, Ainara Ortega, Ane Gabarain. Iparragirrenen aulkian, berriz, Angel Unzu gitarra-jotzailea izango da. Aktoreek Iparragirreri bidalitako eskutitzak irakurriko dituzte eta baita bardoaren kantuak abestu ere. Beraz aktore-kantariak ditugu.

Anjel Unzuk, berriz, musika jarriko dio ikuskizunari gitarrarekin. Itzal luzeko musikari hau gitarra-jotzale bikaina da eta Iparragirrenen sormen musikolari begirada garaikidea emango dio. Angel Unzu zuzen zuzenean joko du eszenatokian.

HIRU TESTUGILE

Eskutitzen tesuak osatzeko bi idazle gonbidatu ditugu: Aizpea Goenaga eta Arantza Iturbe. Biak eskarmentu handiko teatrogileak dira. Honez gain, Iñigo Legorburuk idatzi zuen “Ameriketatik” eskutitz saritua izango dugu abiapuntua. Beraz hiru testugile bildu ditugu ekoizpen honetan: Aizpea Goenaga, Arantza Iturbe eta Iñigo Legorburu.

ESZENA: AULKIAK

Eszenari dagokionez, aulkia izango da irudi nagusia. 80 aulki baino gehiagok osatuko dute eszenografia. Aulki-bide honetan eskutitzak aurkituko dituzte aktore-kantariak. Eta aulki baten gainean Iparragirre (Angel Unzu) izango da gitarra jotzen. Aulkia bizitzaren etapan metafora gisa aurkezten da.



Angela Kerexeta emazteak

Uruguatik Iparragirreri

bidali zion eskutitzaren

hasiera



Bihotzeko Jose Mari...

AMERIKETATIK

1842ko Ilbeltzaren zazpigarrenian

Etsiyak artuta, munduko bazter ontatik eskribitzeko aintzen dit biyotzak. Edo, obeto esanda, ezin eamanezko biyotzeko miñ latz onek. Izan e, euskal lurrian zaudenetik, lurra jota dagona ni neoni bainaiz. Madarikatu dittut milla aldiz azkeneko egun otan zukin atarramentu onik ez nula izango esan ziaten aik. Ne erriya dan Alegi matte artako jendiak, arrazoyan jabe ziala; alegiya.

Azkenian, zuria ta zuria eittekotan ziñala... ta ara! Ementxe utzi nazu 9 umeren jabe! Ara nun diran nik e kantatuko nizuke gustoa asko, goizero-goizero gosiak jota zutaz galdezka esnatu ta aidi ze emanik ez dedanian. "Gernikako arbola-ren lurraldian" eantzuten diyet malkotan urtu biarrian, eta Ume eder bat kantatutzen asten natzaye, ala gosiak daudela aztuko zayelakuan.

EKOIZPENAREN ABIAPUNTUA

Eusko Jaurlaritzaren laguntza izango dugu eta hauxe bera da ekoizpenaren abiapuntua. Horrez gain, Urretxuko udalari, Gipuzkoako Aldundiari eta bestelako eragile kulturaleri laguntza eskatzeko asmoa dago. Elkarlana baita gure lan egiteko modua.

ESTREINALDIA ETA BIRA

Martxoaren 11n, asteazkenarekin, arratseko 19:30ean, Bilboko Arriaga Antzokikoan estreinatuko da, Loraldia Festibalean.

Loraldia Festibalaren zabalera ekitaldia izango da eta estreinatu ondoren Euskal Herrian zehar bira bat antolatzen ari gara. Eraman dezagun kontzertu eszeniko hau euskal aretoz areto, Iparragirrereren memoria merezi du-eta.



FITXA ARTISTIKOA

Ekoizpena

Tanttaka teatroa

Demode Quartet

Loraldia Festibala

Zuzendaritza artistikoa

Fernando Bernues (Tanttaka Teatroa)

Zuzendaritza musikala

Joli Pascualena (Demode Quartet)

Ekoizpen koordinazioa

Aitor Narbaiza (Loraldia Produksioak)

Imanol Agirre (Loraldia Produksioak)

Testugileak

Aizpea Goenaga

Arantza Iturbe

Iñigo Legorburu

Aktore-kantariak

Joli Pascualena

Ainara Ortega

Ane Gabarain

Musikaria

Angel Unzu

Kartelaren diseinua

Unai Molina (Loraldia Produksioak)

Komunikazioa

Amaia Ocerin (Loraldia Produksioak)

Harremanetarako: LORALDIA KULTUR ELKARTEA. produksioa@loraldia.eus

I P A

R R A

G I R R E

Bihotzeko Jose Mari

K O N T Z E R T U E S Z E N I K O A

